

6. FAMILIA AUZITAN

(155')

Helburuak:

- Erabaki zehatz baten alde onak eta txarrak idaztea.
- Kontzeptu batzuen definizioak idaztea.
- Testu baten paragrafoak ordenatzea.
- Hainbat definizio irakurrita, bakoitzaren kontzeptua asmatzea.

Zertan den:

Ataza honetan, ezkontzak berekin dakartzan eskubide eta betebeharez jardungo dugu. Inkesta batetik abiatuta, ezkontzearen aldeko eta aurkako arrazoiak adierazteaz gain, zenbait lagunek ezkontzeko izaten dituzten zergati bitxiez eztabaidatu egingo dute ikasleek. Bigarren atalean, azken urteotan ikusten ari garen familia-eredu berriak izango dituzte hizpide, nahasian emandako paragrafoak irakurrita, artikulua eraikitzen saiatzen diren bitartean. Azkenean, Kode Zibilak jasotzen dituen ezkontideen erregimen ekonomikoak definitzen saiatuko dira, alde zurretik landutako lexikoa erabiliz.

Prozedura

1

Ni zurekin ezkondu?

Atazaurrea (15')

- Irudiak¹ (DVD 6.1.) ikusi ondoren, bi talde osatu behar dira: A taldeak ezkontzearen aldeko arrazoiak idatziko ditu eta B taldeak ezkontzearen aurkakoak.
- Bikoteak (A eta B) egingo dituzte, taulan bildutakoaren berri emateko elkarri.

Ataza (15')

- Ezkerreko zerrendan dauden hitzen sinonimoak eskuineko zutabean aurkitu behar dituzte. Nork berea egingo du.
- Bi kontzeptu dituzte ikasleak liburuan. Lexiko egokia erabiliz, definitzen saiatuko da ikaskide baten laguntzaz.

Feedbacka (10')

- Bikote ezberdinak egingo dituzte, sinonimoak alderatu eta definizioak osatzeko.
- Denen artean definiziorik txukunenak aukeratuko dituzue.

Zuzenketa-orria

Ezkontidea	Bizilaguna
Oinordekoa	Premua
Bizikidetzatza	Elkarbizitza
Agintea	Ahalmena
Zaintza	Begiratzea
Egonkorra	Aldagaitza
Aitorpena	Testigantza
Eraginkortasuna	Efikazia
Betebeharra	Eginkizuna

DEFINIZIOA

Ezkontza	Gizon baten eta emakume baten artean erabateko
-----------------	--

¹ Ezkondu ala ez?, (DB 221), Galdestreet, ETB, 2000.

	bizikidetzako harreman egonkor bat izateko ezartzen den legezko lotura da.
Izatezko bikotea	Elkarrekin bikote egonkor gisa bizi diren sexu bereko edo ezberdineko bi pertsonen lotura afektiboa da.

Gramatika eta diskurtsoa (20')

- Bikote ezkonduari eta izatezko bikoteari dagozkien hainbat ezaugarri dituzte liburuan. Esaldi bakoitzetik hitz bat kendu dugu esanahia gehiegi oztopatu gabe. Ikasleen eginkizuna hitz hori dagokion tokian txertatzea da.
- Bikoteka erka dezatela egindako lana. Ondoren, emaezu erantzun zuzenaren berri.

Zuzenketa-orria

- Amak **espresuki** aitortu behar du seme edo alabaren aita nor den.
- Bikotearekin eta familiarekin zerikusia duten erabaki guztiak **elkarren arteko** adostasunez hartu behar dira. Bata ezin da bestearen ordezkaria izan
- Bikotearen alderdi pertsonaleko betebeharrak (bizikidetzak, leialtasun-betebeharrak...) **hitzarmen** pertsonalak dira eta ez dute ondorio juridikorik.
- Bizilekua bien arteko adostasunez **ezarri** behar da. Adostasunik izan ezean, Epailak erabakiko du interesa kontuan hartuta.
- Elkar errespetatu eta lagundu egin behar dute. Elkarrekin bizi behar dute eta **elkarri** leialtasuna zor diote.
- Ez bata ez besteak ez dute **propio** betebeharrak: etxeko zereginen banaketa elkarren arteko adostasunez egingo da.
- Gizona eta emakumea **erabat** berdinak dira eskubide eta betebeharrei dagokienez.
- Kideetako batek etxeko zereginetan duen **erabateko** arduraldia familiaren sostengurako ekarpenzat hartzen da.
- Ondasun pertsonalak eta ekonomikoak **juridikoki** erregulatuta daude.

2

Familia-eredu berriak

Atazaurrea (20')

- **DVD 6.2.**² ikusi eta gero, pentsatu dezatela zein familia-eredu berri sortzen ari diren azken urteotan. Ondoren, zerrenda bateratua idatziko dute denen artean.
- Bi taldetan jarrita, idatzi berri duten zerrendako eredu bakoitzaren ondoan bere alde txar nagusia idatziko dute. Jarraian, osa ditzatela bikoteak eta aldera dezatela egindakoa ea bat datozen alderik txarrena aukeratzekoan.

Ataza (20')

- Ikasleek liburuan familia-eredu berriei buruzko artikulua³ (**I. eranskina**) baten paragrafoak dituzte. Artikuluak hiru azpititulu dauzka eta bakoitzari bizpahiru paragrafo dagozkie. Nahastuta daude, ikasleak, binaka, ordenatzen saia daitezten.

Feedbacka (5')

- Bikoteak desegin eta berriak sortuko dituzte, taulan idatzitakoa alderatzeko.

Zuzenketa-orria

Izatezko bikoteak	Bakartasunean oinarritutako ereduak	Ezkongabe boteretsuak
D	C	G

² TRICICLE: *Dinamita*, (DB 637), ETB, 2000.

³ *Familia ereduak: bikotean, bakarka, umeekin edo gabe*, in Argia, 2004.

A	E	B
	F	

3

Bakoitzari berea

Atazaurrea (15')

- **DVD 6.3.**⁴ ikusi eta gero, honakoa galdetu zaie ikasleei: ea opariak eskuratzearren ezkontzen den jenderik ezagutzen duten. Ildo horretan, beren inguruko jendeak oparien kontua nola antolatzen adieraziko dute ikastaldearen aurrean.

Ataza (15')

- Kode Zibilak dioenez, ezkontideek hiru erregimen ekonomiko dituzte aukeran. Taulako hiru definizioak irakurrita, bakoitzari zein erregimen ekonomiko dagokion esango dute. Kontzeptuak euskaraz idatzi behar dituzte, baina ezin dira hiztegiak baliatu hitz egokiak bilatzeko.

Zuzenketa-orria	
ERREGIMEN EKONOMIKOA	DEFINIZIOA
Partaidetza	Senar-emazteetako edozeinek ezkontuta egon diren bitartean lortutako irabaziak edo etekinak senar-emazteen ondasun komunak dira.
Irabazpidezko ondasunak	Senar-emazte bakoitzak bere ondasunak ditu eta independentziaz joka dezake, horiek askatasunez administratzeko eta erabiltzeko. Obligazio bakarra da norbere baliabideen arabera ezkontzako kargetan parte hartu beharra.
Ondasun-banantzea	Senar-emazte bakoitzak besteak lortutako irabazietan parte hartzeko eskubidea dauka, baina bakoitzari dagokio norbere ondasunen administrazioa eta gozamena.

Feedbacka (5')

- Nork bere kontzeptuen berri eman ondoren, irakasleak jakinaraziko du zein diren zuzenak.

Atazaostea (15')

- Orain arte irakurri eta entzun duzunaz baliatuta, ea gai zaren hurrengo galderari erantzuteko. Seguru ez bazaude, ikaskideei galdetu.

➤ Ana ezkongabea da eta bost urteko semea du. Orain arte aitak ez du haurra formalki Erregistro Zibilean semetzat hartu. Anak jar al dezake elikagai-demanda bat haurraren aitaren aurka?

⁴ TRICICLE: *Dinamita*, (DB 2442), ETB, 2002.

TRANSKRIPZIOAK

□ DVD 6.1.⁵

Iraupena: "

Esataria 1: Errumaniako neska bi ere, bikiak, ezkontzeko, edozeinekin ezkontzeko, ez daude prest: beti elkarrekin egon dira eta ezkontzeko ere bikiak nahi dituzte.

Esataria 2: Eta lortu al dute beraien zeregina?

Esataria 1: Ez ba, eta bikiak lortu ez dituztenez, moja sartu dira.

Esataria 2: Ja, ja. Hori egia da?

Esataria 3: Bai, bai, egia da.

Esataria 2: Baina galdera, benetako galdera, pisuduna, zera da: Ezkondu ala ez ezkondu? Hortxe dago koska!

Elkarrizketatzailea: Nik uste nuen ezkontzea gauza ona zela baina ezkontzen diren guztiek esan didate ez ezkontzeko. Ea jendeak argitzen didan zer den hobe.

Nortzuk bizi dira hobeto, ezkonduak ala ezkongabeak?

Emakumea 1: Nik uste dut denak ezberdinak garela. Batzuk ezkondu gabe eta beste batzuk ezkondu.

Neska gaztea: Ezkongabeak.

Elkarrizketatzailea: Zergatik?

Neska gaztea: Dena nahi duten bezala egiten dutelako.

Elkarrizketatzailea: Ezkonduak?

Emakumea 2: Bai.

Gizona 1: Ezkondu gabekoak. Dena libre...

Elkarrizketatzailea: Zein gauza on dauka ezkontzeak?

Emakumea 3: Gutxi, ez ditut topatzen.

Gizona 2: Segun eta zeinentzako den. Batzuentzako txarra eta besteentzako ona.

Elkarrizketatzailea: Eta zuretzako?

Gizona 2: Niretzako ona.

Aita gaztea: Problema ez da ezkondu egotea edo ez, problema izaten da umeen asuntoa.

Elkarrizketatzailea: Ze alde txar dauka ezkontzeak?

Neska gaztea: Ez dakit, ezkontzen naizenean esango dizut.

Emakumea 4: Niretzat ezer ez txarrik, niretzat ez. Niri ondo joan zait, niretzat ezer ez.

Elkarrizketatzailea: Zer alde ona dauka ezkongabeak?

Neska gaztea: Ezkongabeak alde onak? Denak.

Elkarrizketatzailea: Denak bentaja dira?

Neska gaztea: *Klaro, klaro.*

Elkarrizketatzailea: Ni ere ez naiz ezkonduko orduan.

Apaiza: Eta honela maitatu eta errespetatuko al duzu zure bizitza osoan?

Senargaia: Ez dut nahi.

Elkarrizketatzailea: Ezkonduak zer estimatzen du gehiago, ohea ala lapikoa?

Dendaria: Ezkonduak? Ja, ja, biak baina jada urte asko direnean, igual lapikoa.

Emakumea 3: Ezkonduak? Gizonezkoak baldin badira agian lapikoa, ez dakit.

Elkarrizketatzailea: Eta emakumezkoak baldin badira?

Emakumea 3: Ohea, seguru.

⁵ *Ezkondu ala ez?*, (DB 221), Galdestreet, ETB, 2000.

Gizona 3: Ja, ja, biak, bata bestearen ondorenean.
 Gizona 1: Lapikoa ere bai. Gauean ohea eta gero lapikoa.
 Elkarrizketatzailea: Nolakoa izango litzateke egoera onena?
 Gizona 1: Bada, soltero, dirua nahikorekin.
 Elkarrizketatzailea: 18 edo 20 urte edukiko bazenu, ez zinateke ezkonduko?
 Gizona 1: Ez.
 Agurea: Ni horrelako sasoiarekin...
 Elkarrizketatzailea: Emadazu mesedez aholku bat bikoteren bat gutxienez aurkitzeko.
 Emakumea 3: Ea ba. Oso goxoa izan behar zara, matxista ez. Ez zara?
 Elkarrizketatzailea: Ez, ez naiz.

Elkarrizketatzailea: Jendearen iritzia entzun arren, erabaki ezinik nago. Orain alderdi onak eta alde txarrak nabarmenago ikusten ditut. Itxaron egin beharko dut.

Esataria 3: Nor bizi da zoriontsuago, ezkondu gabeak ala ezkonduak?
 Esataria 1: Ezkondu gabe askeago zara.

DVD 6.2.⁶

Iraupena: 1'

Apaiza: Montse, bakarrik bizitzen jarraitu nahi duzu mendekotasunik gabe eta honek dakarren askatasunean heriotza arte?
 Emakumea: Bai, hala nahi dut.
 Apaiza: Topo egiten duzun aurrenekoaz maitemindu, berarekin ezkondu, familia bat osatu eta zure bizitza hipotekatzeko tentalditik urundu nahi duzu?
 Emakumea: Bai, hala nahi dut.
 Apaiza: Eta, bukatzeko, zeure bizitza egitea agintzen duzu inori azalpenak eman gabe, onean eta txarrean, osasunean eta gaixotasunean?
 Emakumea: Bai, hala agintzen dut.
 Apaiza: Montse, ezkongabea eta inolako erantzukizunik gabea deklaritzen zaitut. Has zaitezke...
 Emakumea: Iup!! Oe, oe, oe...

DVD 6.3.⁷

Iraupena: 50''

Emakumea: Aita Antselmo!
 Apaiza: Zer da, gazteok?
 Mutila: Ezkondu egin nahi dugu.
 Apaiza: Zorionak! Ezkondeiak egingo ditut eta ea irailerako edo...
 Emakumea: Iraila? Ezin dugu horrenbeste itxaron.
 Apaiza: Baina paperak prestatu behar dira, lekukoak aukeratu...
 Gizona: Lehenbailehen ezkondu nahi dugu.
 Emakumea: Oso presakoa da.
 Apaiza: Jauna! Ez iezadazue esan haragiaren atseginean jausi zaretela.
 Gizona: Bai, ba. Mikrouhin labea behar dugu.
 Emakumea: Felix!

⁶ TRICICLE: *Dinamita*, (DB-637), ETB, 2000.

⁷ TRICICLE: *Dinamita*, (DB 2442), ETB, 2002.

Gizona: Urtebete daramagu elkarrekin bizitzen ezkontzea txorakeria zela eta, baina orain eztei-opariak ederki etorriko litzaizkiguke.

Emakumea: Uler ezazu, aita. Ontzi-garbigailurik ere ez daukagu!

Gizona: Baxerarik ere ez.

Emakumea: Musika-katerik ere ez.

Gizona: Telebistarik ere ez.

Apaiza: Hortik hasi behar zenuten! Zerbitzu berezia daukagu larrialdietarako. Asteazkenean ondo?

Emakumea: Primeran.

Familia ereduak: bikotean, bakarka, umeekin edo gabe

M. GONZALEZ, I. JAUREGI /

Izatezko bikoteak

Ezkontza kopurua gutxituz joan da eta, ezustekoa bada ere, izatezko bikoteekin gauza bera gertatzen ari da. Bakarrik bizitzeko joera hori kolektibo homosexualetan ere gertatzen ari da.

Bikotean bizitzea aukera gisa ikusten hasi da; are gehiago, ezkontzea bigarren hautu bat izan daiteke. Horrela uler daiteke, 2001ean, ezkontza zibilak katolikoek ia erdira heldu izana. Hau da, ezkontza tasak beheranzko joera azaltzen badu ere, ezkontzen artean zibilak hazten dira, errito katolikoaren kaltetan. Era berean, elkarrekin bizitzea erabakitzen duten bikoteak gero eta gehiago dira, ezkontzen diren bikoteekin alderatuta.

Bakartasunean oinarritutako ereduak

Azken hamar urteetan bi gurasoetako batek eta seme-alabek osatutako familien kopurua %50 igo da. Eta Espainia osoan dagoeneko, 100etik 7 dira horrelako familia osatu dutenak. Horien artean, amak —eta ez hainbeste aitak— dira protagonista nagusiak. Hain zuzen ere, Euskal Autonomia Erkidegoan, horrelako familien artean %81,5etan ama da familiako burua. Gehienetan bikote hausturen ondorioz, alargun geratu ondoren edota bakarrik ama izateko erabakia hartu duten amek osatzen dituzte.

Gaur egun orokorrean bakarrik bizi diren lagunen %60 emakumeak dira; horien erdia ezkongabeak dira. Fenomeno berri horren atzean, andrazkoa lan mundura gerturatu izana dago. Emakumea eremu publikoan presente egoteak bikoteek izan nahiko lituzketen umeen kopurua mugatuko lukeela aurreikusi zen garai batean. Emakumeek lortutako independentzia ekonomikoak, baina, familia eredu bera kuestionatzera eramango gaituela ez zen aipatzen oraintsura arte. Eta egungo datuek argi frogatzen dute aldaketa hori ematen ari dela.

Horrekin batera suertatu da haurrak izateko adina atzeratzea. Lehenengo haurra izateko adinak atzera egin du, egonkortasun ekonomikoa ziurtatuta eduki arte, hain zuzen. Gaur egun, lehenengo umea izateko batez besteko adina 29,5 urte da, Euskal Herri osoko datuen arabera. Bikotea eta seme-alabak «geroaren proiektioaren isla» direla azaldu digu Urteagak. Hortaz, egoera ekonomiak baldintza dezake ziklo hori. Urteagak gogoratu duenez, «hazkunde ekonomikoak, esaterako, jaiotze-tasan eragin nabarmena izaten du».

Ezkongabe boteretsuak

Orain hamar urte ezkongabea izatea eta galtzailea izatea gauza bera zen, 25 urtetik aurrera behintzat. Gaur egun, ordea, Espainian ezkondu gabe 25 eta 49 urte bitarteko 5 milioi pertsona baino gehiago bizi da. Eta hain zuzen ere, horiek dira egun gizartearen talde kontsumitzaile indartsuenetakoa: ezkongabeek diru kopuru handiak xahutzen dituzte modan, dekorazioan, aisialdian, bidaietan, produktu teknologikoetan...

Gehienak hiri handietan bizi dira eta maila kultural eta ekonomiko handia dute. Oraindik gehiengo ez diren arren, asko hazten ari den klase soziala da gazte ezkongabeena. Soziologoek diotenez, Espainian kopurua oraindik txikia da Europako beste hainbat herrirekin alderatuz. Eta horren arrazoia, orain artean gazteak gurasoen etxetik beranduago ateratzen direla izan da.